



LIBURUA

Bizitza, nola erabili



ANA ABARSKETA / UKH

HIZLANDIA IÑIGO ARANBARRI

SUSA, 2006

ARITZ GALARRAGA

Itzatuta daukat oraindik: “Une hone-tan errazago idatz dezaket nobela bat poema bat baino”. 2011n eman zuen Iñigo Aranbarrik sententzia, eta emaitzek itzuli diote arrazoia, ordutik hona narrazio-gintzara lerratu baita argiki, lirika momentuz bazter utzita. Poeta gisa hasi, nobela-ipuingile azkenaldian, beste genero bateko liburu bat izango diot nik maiteen, behintzat maizen irakurri diodan lana: *Hizlandia*, 2004-2006 urteetan *Berria*-n idatzitako artikuluen antologia. “Egunkariaren eguneroko martxa jarraituko zuen norbait nahi zuten, irakurle publiko eta kritikoa”.

Kazetaritzaren herrenak seinatlatzea zuen, beraz, zeregin, idatziarenak, irri-telebistenak. Kanpokoak eta barrukoak, barrukoenak. Ofizioaren gainekoak

denak. Batzuetan irudi lezake txikikeriak seinatlatzen direla, beste batzuetan gehiegikeriak esaten, baina ezin ezinbestekoak iruditzen zaizkit liburu honetara bildutako artikuluko kasik guztiak, profano eta profesionalentzat ofizioari buruzko *master class* bat. Hitzarean esaten da: “Kazetaritza arduratsuaren bindikapena izan da borrokaldi bakoitza”.

Baina, azkeneko, hori baino askoz gehiago ez ote den: “Prenstaz ez ezik munduaz eta mundutaz dudak iritziak” ematen du Aranbarrik. Kazetaritza pus-kaz harago doazen iritziak, tarteka birrintzaileak –“Hirugarren Mundukoak maite ditugu gure olatuei kolorea emateko”–, beti jakingarriak –“Moussaouik gehiago laguntzen du herri hau ulertzen Mattin Partarrieu-ren koadro *kitsch* guz-

tiak baino”–. Eta guztien atzean dago idazle bat, nabari da karamelu zaiola ari-keta: “Idazle bati egunkari batek eskain diezaiokkeen lanik onena”. Azken-azke-nerako, harako Péric haren *La vie, mode d’emploi* etortzen zaizu gogora, eskulibu-ru baita *Hizlandia*, behin eta berriz kontsultatzekoa, bizitza nola erabili behar den argitzeko ezinbestekoa.

Liburu honekin konfirmatu ditut hiru gauza. Baga, prentzako zutabe, artikuluko kronikak, berriz liburuan biltzeak badi-uela zentzu, interesik. Biga, Susako, zutabe ez izan arren, saiakera atalaren balioa –hemen iruzkindu ditugu Jon Alonso, Garbiñe Ubedarenak–. Eta higa, noski, Aranbarriren ekarri handia, zeina ez den berria. Hiru batean; halako es-kaintzarik. ●